



BOOKTEGI

# Meza nagusia

UXUE ALBERDI  
AMORANTE



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

UXUE ALBERDI  
AMORANTE

# Meza nagusia

## ELIZAKO MUSIKA

(Zutik)

In nomine Patria et Lili et spirituz anti.

Amen.

Introibo ad altare Dei.

(Eseri)

Paper-jaleak, bibliofiloak, liburutegi-saguak, letra-joak, literatoak, letratuak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Fikzioaren eskisitoak, ipuinzale estrikoak, jende kultua, pupitreroa, burujantzia. Herkide lixtoak, eskolatuak, leituak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Irakurle libreak, irakurle noizbehinkakoak, irakurle ekinak, irakurle bahituak, BDSM irakurleak (alegia, bondage-a, diziplina, dominazioa, sumisioa, sadismoa eta masokismoa maite dituzuen bekatariak), irakurle konprometituak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Irakurri aurretik liburuak zuzentzen dituzuen euskaltzain urgazle, euskaltzain erdi, euskaltzain hiru laurden eta euskaltzain osoak, errata-bilatzaileak, urretxikitan bezala aritzen zaretenak akatsik den mendrenaren xerka, sintaxiaren eusko gudariak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Autofikzio, autofrikzio, autoimitazio, autoretza eta autoritate zaleak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Best-seller irensleak, irakurle bulimikoak, suspense-adiktoak, idazle enpotratzaileen biktimak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Irakurle maiseatzaileak, irakurle psikoanalistak eta irakurle moralistak, irakurle puritanoak. Haur besoetakoaren difamatzaileak eta babesleak, badaitekeenaren eta ez daitekeenaren zaindariak, gure eskandalutxoan zaltetxoak. Usainetik bakarrik 15 editorial diferente bereizteko gai zareten basurde trufa-bilatzaileak. Liburu bat ireki eta mokoa bertan hondoratzeko bizioa duzuenak –orrialdeak masailak laztantzen–, muturra maitalearen ipurmasailen artean sartzen duzuenean nola. Usain bat espero duzue gutxi gorabehera, baina beti dago bariazio txikiren bat.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Euskal literaturan Lagun izoztuatik Miñan arte eta handik aurrera ezer publikatu ez dela konbentzitura zaudeten aberkide jatorrak, 110. Streeteko geltokian jaitsi zinetenak, SPrako tranbia hartu zenutenak, overbooking-a zela-eta Bilbaotik New Yorkerako hegaldia galdu zenutenak, Turista Klasean zoaztenak, Bihurguneko nasan zain zaudetenak, Deklaratzekorik ez duzuenak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Aritz Branton pertsonaia literario bat dela uste duzuenak, Harkaitz Cano neoprenoa jantzita ikusi duzuela zin dagizuenak, Katixa Agirreren ukelelearekin epatatuta zaudetenak. Aurten bai, aurten Ulises irakurriko duzuenak, lagunek idatzitako liburuak haien bizkar kritikatzten dituzuen traidoreak, irakurle mizkinak, liburuak erosi bai baina irakurtzen ez dituzuenak. Amek ez dute, Amez, Ama-Eme-Ume eta Amatu elkarren segidan irakurri eta bularretatik esnea darizuenak, Lisipeko azalak bezain idortuta zaudetenak.

Dominus vobiscum.

Et cum spiritu tuo.

Zuen mutil-lagunek irakurtzen ez dutelako kezkatuta zaudeten neska gazte heteroak, guraso egin zinetenetik irakurtzeko astirik ez duzuen aitak, guraso egin zinetenetik dutxatzeko astirik ez duzuen amak. Maitaleei liburuak dedikatzen dizkiezuen inprudenteak, irakurketan murgilduta lentejak erretzen zaizkizuen etxekoandreak, bizikleta estatikoan irakurtzen duzuen plurienpleatuak, triatleta kultuak eta kulturista tristeak, hormara iltzatu gabeko apalategi mukuru beteekin haur txikiak zanpatuta hiltzeko arriskuan jartzen dituzuen infatizida potentzialak.

(Zutik)

Oremus. Aufer a nobis, quaesumus, Domine, iniquitates nostras: ut ad Sancta sanctorum puris mereamur mentibus introire. Per Christum Dominum Nostrum.

Oramus te Domine, per merita Sanctorum tuorum quorum reliquiae hic sunt, et omnium Sanctorum: ut indulgere digneris omnia e peccata mea.



Amen.

(Eseri)

### AGUR JESUSEN AMA

Agur, Jesus'en ama,

Birjiña maitea,

Agur, itxasoko izar

Dizdiratzailea.

Agur, zeruko eguzki

Pozkidaz betea.

Agur, pekatarien,

Kaia ta estalpea.

Baña Zugandik alde,

Bihotzak ezin du,

Zuregana dijoa,

Zugan bizi nahi du.

Birjin berdingabea,

Onetsi nazazu:

Agur, Ama nerea,

Agur, agur, agur.

Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan  
gaitezen.

Barka gaitzazu, Fauna

Idatzi ez ditugun eszena erotikoengatik.

Irakurri gabeko klasikoengatik.

Liburutegira itzuli gabeko tituluengatik.

Lagunei ebatsitakoengatik.

Elkarri sarturiko eztenengatik.

Agnus Dei, qui tollis

peccata mundi,

miserere nobis.

Barka gaitzazu, Fauna

Lizunkeria ez beste bekatu nagusi guztiengatik.

Gure parrokiakoak ez diren idazleekiko zikoizkeriarengatik.

Liburu-aurrezpen, bilera, epaimahaikideen batzar, biltzar ttipi eta literatura salbatzeko elkarte gastronomikoetan egindako goi-gailur bakoitzeko sabelkeriagatik.

Euskarazko liburu bat hasteko inoiz, oso gutxitan, behin edo behin sentitutako alferkeriagatik.

Kritikariekiko iragatik.

Gu baino idazle hobeen, gazteagoen eta guapoagoen aurkako bekaizkeriagatik.

Harrokeriagatik, harrokeriagatik, harrokeriagatik.

Barka gaitzazu, Fauna

Et ne nos inducas in tentationem.

Barka gaitzazu, Fauna, oker esandakoengatik. Bernardo Atxagaren Soinujolearen alaba, Ramon Saizarbitoriaren Intxaurrondo, Karmele Jaioren Aitaren eskuak eta Amaren etxea, Xabier Montoiaren Non dago Lenin?, Ana Malagonen Gelditu gurekin trankil, Joxe Austin Arrietaren Abuztuaren 15eko afai-paxa eta Harkaitz Canoren Kefirraren ahotsa ez dira existitzen.

Miserere nobis.

Barka gaitzazu, Fauna.

Elkarri kopiatu dizkiogun esaldiengatik.

Ironia kobardearengatik.

Alferrik xahututako metafora, adjektibo, irudi eta similengatik.

Kartoi-harrizko pertsonaia, dialogo eta dekoratuengatik.

Ipuina ganoraz amaitzen jakin ez eta zabarki hil akabatu garbitu likidatu dugun pertsonaia bakoitzarengatik.

Ilusionatzeko ezintasun kolektiboarengatik.

Hunkigarrismo, lehorismo, grisismo, zinismo, guaismo, oportunismo, kuadrillismo, kanibalismo, karlismo, turismo, alpinismo eta ziklismo gaindosiengatik.

Gaztelaniaren sintaxia kalkatu eta gure burua zaldi gainean trostan imajinatu dugun aldi bakoitzarengatik.

Gure konplexuengatik.

Miserere nobis.

Et ne nos inducas in tentationem.

(Zutik)

HALLELUJAH

Eta salba gaitzazu, arren, Fauna

Amazonen erostetik

Twitterreko norgehiagoka falozentrikoetatik

Zakurrei idazle gizonen abizenez –Kafka, Chomski, Pamuk–

eta katuei idazle emakumeen izenez –Colette, Gertrude, Charlotte–  
deitzetik.

Sed libera nos a malo.

Salba gaitzazu Fauna,

Holly, Jordan, Daisy, Maga, Lolita, Emma, Sherezade deitu diguten gizon

galaien aurrean kuleroak edo, are, Emma Bovary bezala eskularrua

erantzetik. Raskolnikov, Robinson, Romeo, Sherlock, Gregor, Humbert eta

Ahab kapitain guztiekiko subordinazio praktiko, sinboliko, ekonomiko eta  
erotikotik.

Kitzikitu nahi bagaituzue jarri lau-hankan eta deituiguzue, gutxienez, Sabina  
Gojenola.

Libera nos, quaesumus, Domine,  
ab omnibus malis, praeteritis,  
praesentibus, et futuris.

Amen.

GREGORIANOA (letra gabe)

In principio erat Verbum, et  
Verbum erat apud Deum, et Deus  
erat Verbum.

Eman bakea elkarri.

KANPOSANTUKO BANKETEA